



II. FASEAREN AURRERAPENAK

KONPROMISO TALDERAKO

TXOSTENA

OGPEuskadi
konpromiso#2
open data euskadi
& linked open data

2020KO URRIA

aurkezpena

HITZAURREA

OGP Euskadi ekimenak datu irekierako konpromiso zehatza hartu du.

Bigarren fasean, **administrazio arteko izaera** duten zerbitzuak martxan jartzeko lan egin dugu. Administrazioek ireki dituzten datuez horniko dira zerbitzu horiek.

Datuak estandar amankomunak jarraituz publikatu dira. Halaber, argitaratze prozesuak 5 esparrutan arreta jarri du:

- **Mugikortasun iraunkorra**
- **Ekitaldien agenda**
- **Ingurumen-kalitatea**
- **Kirola eta bizitza osasungarria**
- **Kontuak ematea**

Proiektuaren hasieran egutegi bat aurreikusi zen; halere, COVID-19-ak eragindako **krisi-sanitarioak** hura betetzea eragotzi du.

Berrikuspen Mekanismo Independentea egin dugun lana ebaluatzen ari da, kontuan hartuz finkatu genituen helburuak bigarren fasea abiatzean.



jomuga

HELBURUA

Datu irekien esparruan aurrera egiteko euskal administrazio nagusiek burutzen ari diren ekimenari buruzko azalpen laburra duzu hemen.

NOR?

- Eusko Jaurjaritza
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Vitoria-Gasteizko Udala

ZER?

- 27 datu-multzo elkarrekin argitaratu.
- Datu irekietan oinarritutako administrazio arteko zerbitzuak (gutxienez, bi) martxan jarri.

NOIZ?

- Kultur-ekitaldien, trafikoa egoeraren eta administrazio-ekitaldien API-ak Open Data Euskadin daude jada!
- Halaber, urtearen amaierarako prest egongo dira zerbitzuak.

ZERTARAKO?

- **Administrazio arteko lan-kultura** sustatzeko.
- Datu irekien argitalpenean **elkarrekin aurrera** egiteko.
- Zerbitzu berriekin **balio publikoa** sortzeko.
- Puntu bakar batean 7 administrazioen **datuak eskaintzeko**.

27ak

DATU-MULTZOAK

II. fasean, honako datu-multzo hauek argitaratze konpromisoa hartu zuten euskal administrazioek, euren eskumenen eta ekintza-esparruaren arabera.

Zerbitzua	Iturria	#	Datu-multzoa
Mugikortasun iraunkorra	Trafikoa	1	Trafiko gorabeherak
Mugikortasun iraunkorra	Trafikoa	2	Trafiko-kamerak
Mugikortasun iraunkorra	Trafikoa	3	Trafiko-dentsitatea / Trafikoaren aforoak
Mugikortasun iraunkorra	Trafikoa	4	Trafikoaren egoera
Mugikortasun iraunkorra	Aparkaleku publikoak	5	Aparkaleku publikoen kokapena
Mugikortasun iraunkorra	Aparkaleku publikoak	6	Aparkalekuen okupazioa (unean-unean)
Mugikortasun iraunkorra	Bizikleta eta bidegorriak	7	Bidegorriak
Mugikortasun iraunkorra	Bizikleta eta bidegorriak	8	Bizikleta geltokiak(unean-unean)
Ekitaldien agenda	Agenda instituzionala	9	Kargu instituzionalen agenda
Ekitaldien agenda	Administrazio-agenda	10	Gertaera administratiboen agenda
Ekitaldien agenda	Kultur agenda	11	Kultur agenda
Ingurumen Kalitatea	Hondakinen kudeaketa	12	Edukiontziak
Ingurumen Kalitatea	Hondakinen kudeaketa	13	Hondakinen bilketa (mota, kantitatea, etab.)
Ingurumen Kalitatea	Airearen kalitatea	14	Airearen kalitatea
Ingurumen Kalitatea	Uraren kalitatea	15	Giza kontsumorako uraren kalitatea
Ingurumen Kalitatea	Uraren kalitatea	16	Ur-masak
Ingurumen Kalitatea	Kutsadura akustikoa	17	Estazioak eta neurketak akustikoak
Kirola eta bizitza osasungarria	Kirol ekipamenduak	18	Kirol-instalazioen kokapena
Kirola eta bizitza osasungarria	Kirol ekipamenduak	19	Kirol-instalazioen erabilera
Kirola eta bizitza osasungarria	Parkeak eta lorategiak	20	Parke eta lorategien mapak
Kirola eta bizitza osasungarria	Parkeak eta lorategiak	21	Parkeen eta lorategien zerrenda
Kontu ematea	Aurrekontuak eta gastuak	22	Urteko aurrekontuaren proiektua
Kontu ematea	Aurrekontuak eta gastuak	23	Urteko aurrekontua
Kontu ematea	Aurrekontuak eta gastuak	24	Aurrekontua gauzatzea
Kontu ematea	Hitzarmenak	25	Hitzarmenak
Kontu ematea	Diru-laguntzak	26	Diru-laguntzak
Kirola eta bizitza osasungarria	Parkeak eta lorategiak	27	Ibilbideak

taldeak

ANTOLAKUNTZA

Datu irekien esparruan aurrera egiteko euskal administrazio nagusiek burutzen ari diren ekimenari buruzko azalpen laburra duzu hemen.

ZUZENDARITZA TALDEA

TALDE TEKNIKOA

Eginkizunak

- Lidergoa

- Lana koordinatu

Parte-hartzaileak

-EJIE

-Eusko Jaurlaritza

-Eusko Jaurlaritza

-Arabako Foru Aldundia

-Bizkaiko Foru Aldundia

-Gipuzkoako Foru Aldundia

-Bilboko Udala

-Donostiako Udala

-Vitoria-Gasteizko Udala

- EJIE

Bilerak

[Ver actas](#)

- Uztaila

-Urria

-Azaroa

-Maiatza

- Uztaila

- Urria

- Urtarrila

- Otsaila (Online)

- Martxoa (Online)

- Maiatza (Online)

Bulego teknikoa

desideDatum
01100100 01100001 01110100 01100001

entregatzekoa

EGINDAKO LANA

DIAGNOSTIKOA

Lehenbiziko lan garrantzitsua izan zen diagnostikoa. Eskumenak kontuan hartuz, administrazio bakoitzean aztertu genuen: datuen erabilgarritasuna, kalitatea eta argitaratze bideragarritasuna.

Ondoko dokumentuan bildutako informazioaren laburpena duzu.

[Aurkezpena ikusi](#)

BENCHMARKINGA

Datu irekietan oinarritutako eta balio publikoa sortzen duten zerbitzuen bilaketa egin zen, gure inguruan eta nazioarte mailan. Izan ere, jardunbide egoiak ezagutzea zen helburua.

Ondoko dokumentuan adibide interesgarrienak jasota dituzu.

[Aurkezpena ikusi](#)

NORMALIZAZIOA

Proiektua hasi zenean, administrazioak konprometitu ziren datu-multzoak argitaratzera estandarrak (edo datu-eredu komunak) erabiliz.

Datu-multzo kopuru zabal bat normalizatzeko elkarrekin lan egin dute Eusko Jaurlaritzak eta bulego teknikoak.

Erabilitako normalizazio guztiak jasoko duen gida prestatu dugu, beste administrazio publiko batzuek, tartean Euskadiko Udalek, erabiltzeko aukera izan dezaten.

zerbitzuak

PRODUKTUAK

Urte amaierarako prest egongo dira zerbitzuak, aurreikusitakoa betetzen bada da.

KULTUR AGENDA

Administrazio guztiek agenda kulturala dute. Egun, datu horiek eskuz sartzen dira KulturKlik-en.

Administrazioen kultur-agenden datuen integrazioa automatizatu nahi dugu. Horretarako, beharrezko da administrazio guztiek KulturKlik-i datuak ematea normalizazioa jarraituz, XML formatuan.

Administrazioek zailtasun teknikoak izan dituzte; beraz, integrazio prozesua ez da amaitu oraindik.

Halere, KulturKlik-en jasotzen diren ekitaldi kulturalen API-a [Open Data Euskadin](#) argitaratu da.

Halaber, *widget* batzuk sortuko dira datuak bistartzeko. Administrazioek aipatutako *widget*-ak euren webgunetan integartzeko aukera izango dute.

TRAFIKOA

Trafikoaren egoerari buruzko datuak eskaintzen duen API-a [Open Data Euskadin](#) argitaratu da.

REST zerbitzuaren bitartez trafiko-kameren eta gorabeheren datuak eskuragarri daude; hain zuen, 7 administrazioen datuak.

Ez da hori gauzatu trafiko-aforoekin (dentsitatea); izan ere, estandarizazio prozesua zaila izaten ari da. Halere, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren datuak kargatuta daude jada.

DIRU-LAGUNTZAK

Administrazio guztien diru-laguntza datuak Eusko Jaurlaritzaren Diru-laguntzen Atarian biltzea da helburua.

Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalaren (BDNS, gaztelaniaz) baliokidea den datu-basea prestatzea da nahia, proiektuan parte hartzen duten administrazioen datuekin.

Zerbitzu zailena da. Momentu honetan, informazioa kargatzeko prozesuetan lanean ari gara.

AGENDA ADMINISTRATIBOA

Administrazio-ekitaldien API-ak kontratazio publiko-arekin lotura duten ekitaldien datuak eskaintzen ditu.

Etorkizunean, administrazioarekin lotura duten beste ekitaldi mota batzuk gehitzea aurreikusita dago: gobernu batzarrak, parte-hartze prozesuak, eta abar.

Azkenik, *widget*-ak laster egongo dira prest. Aipatutako teknologiak datuak bistaratzea erraztuko du. Halaber, administrazioek *widget*-ak euren webgunetan integratzeko aukera izango dute.

zerbitzuak PRODUKTUAK

Uztailaren 23-an, Foro Irekiaren astea zela eta, jardunaldi bat antolatu genuen egindako lana aurkezteko, kontuak emateko eta; etorkizunera begira, ideiak edota iradokizunak jasotzeko.

 <p>Foro Irekia online. 2 eta 3 Konpromisoak</p>	 <p>uztaila / julio 11:00</p>
<p>Partaidetzako berrikuntza-esperientziak <i>Esperimentatzea eta partekatzea arlo publikoa eta komuna hobetzen laguntzeko.</i></p>	<p>21</p>
<p>Parte-hartzean berrikuntzarako llib-a <i>Parte-hartzearen berrikuntzaz elkar-lagundu eta ikasteko komunitatea.</i></p>	<p>22</p>
<p>Open data eta zerbitzuak datu irekiekin <i>Administrazioek bat egiten dute beren datuak zabaltu, zerbitzu berriak eskaini eta gizartearen erabilera sustatzeko.</i></p>	<p>23</p>

Komunikazio kanpaina bat egin zen, [bideoekin](#) eta mezuekin sare sozialetan.

Koronabirusaren aurrean prebentzio neurri gisa, jardunaldia online izan zen. Aipatutakoa ez zen eragozpena izan arrakastatsua izateko, izan ere, berrogeita hamar pertsona inguru jarraitu zuten ekitaldi osoa Internet bidez. [Ekitaldiaren bideoa eskuragarri](#) duzu Youtuben.



Iorpenak

AURREPAUSUAK

Honako taula honetan argitaratutako datu-multzoak eta eskuragarri dauden normalizatutako dataset-ak ditugu.

#	Datu-multzoa	Foru Aldundiak								Udalak					
		Eusko Jaurlaritza		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Bilbo		Donostia		Vitoria-Gasteiz	
		ARGI TARA TUTA	NOR MALIZA TUTA	ARGI TARA TUTA	NOR MALIZA TUTA	ARGI TARA TUTA	NOR MALIZA TUTA	ARGI TARA TUTA	NOR MALIZA TUTA	ARGI TARA TUTA	NOR MALIZA TUTA	ARGI TARA TUTA	NOR MALIZA TUTA	ARGI TARA TUTA	NOR MALIZA TUTA
1	Trafiko gorabeherak	Bai	Bai	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
2	Trafiko-kamerak	Bai	Bai	Ez dagokio	Ez dagokio	Bai	Bai	Ez dagokio	Ez dagokio	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
3	Trafiko-dentsitatea / Trafikoaren aforoak	Bai	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez
4	Trafikoaren egoera	Parcial	Ez	Bai	Parcial	Ez	Ez	Ez dagokio	Ez dagokio	Bai	Parcial	Ez	Ez	Bai	Parcial
5	Aparkaleku publikoen kokapena	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
6	Aparkalekuen okupazioa unean-unean	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez
7	Bidegorriak	Ez dagokio	Ez dagokio	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
8	Bizikleta geltokiak unean-unen	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio	Bai	Bai	Bai	Parcial	Ez dagokio	Ez dagokio

Open
Government
Partnership
Euskadi



esker anitz
ESKERRIK
ASKO!

<http://www.ogp.euskadi.eus/>